

TEKNOLOGIA

Ezagutza sortzaileak



DIANA FRANCO

Ezagutzak –tartean teknologiak– eta kulturak oso harremanduta daude, eta sortzen diren lekuei eta han dauden harreman moduei lotuta daude. Belaunaldiz belaunaldi saiatzen gara gure bizitzetan esanguratsua izan dena eta gizakion ongizaterako beharrezko bezala ulertu duguna jasotzen hurrengo belaunaldiei eskaintzeko, oparia bailitza. Ezagutza norbereganatzea, ordea, ez da soilik memoria kontua, memoria oso garrantzitsua bada ere. Paulo Freire pedagogoak hezkuntza bankarioa deitzen zion informazioa buruetan sartzeko saiakerari, bankuekin eta diru gordailuekin analogia eginez. Haurren buruetan informazio deposituak sartzeara bilatzen duten hezkuntza ereduak ez dute sortzen ezagutza bereganatzeko prozesu bat.

Ezagutza norbereganatzea eraldaketa prozesu bat da, esperientzia kontu bat. Datuetatik informaziora, eta informaziotik ezagutzara igarotzea ez da solik eduki kontua. Saiakera dakar berarekin.

90eko hamarkadan, enpresa munduan oso famatuak egin ziren enpresen ezagutza kudeatzeko ahaleginetan Nonaka eta Takeuchi, SECI ereduarekin: Socialization, Externalization, Convination, Internalization (Gizarteratzea, Sistematizazioa, Nahasketa, Barneratzea). SECI ereduarekin honako ideia jaso zuten: pertsona batzuk sistematizatu eta gizarteratu duten ezagutza geureganatzeko, esperimintatzea da bide bakarra. Esperientziaren bidez, geure izaerarekin eta aurreko ezagutzekin nahastuko dugu informazio berria, eta orduan, informazioa izatetik ezagutza izateko bidean izango gara, ezagutza barneratzeko bidean.

Orain dela zenbait urte, Tabakalera Hirikilabs-en hartu nuen parte hainbat irakasleekin batera. Landu genuen zelan bihurtu hezkuntza espazioak esperimintatzeko, saiatzeko eta ezagutza sortzeko espazio, zelan igaro hezkuntza bankariotik beste eredu batera. Ez da erantzun erraza, aldagai asko daude bidean, baina orduz geroztik ikasleak ezagutza sortzaile gisa ikusten ditut, eta irakasleak euren bidai-lagun onen moduan, prozesu horretan. ●

NAZIOARTEA



NRC

Lehen eta bigarren mailako laguntza humanitarioak

AXIER LOPEZ

Burkina Faso jasotzen ari den laguntza humanitarioaren %70 egun batetik bestera desagertu liteke, Ukrainako krisiari erantzuteko baliabideak “birbanatzearen ondorioz”. Hori ondorioztatzen da, behintzat, Oxfam, Munduko Medikuek, Gosearen aurkako Ekintza eta Errefuxiatuentzako Norvegiako Kontseilua GKE ezagunen aurreikuspenak irakurri zireno.

GKE horiek argitaratu duten analisiak azpimarratu duenez, azken urteotan Burkina Fasoko 1,7 milioi pertsonak etxetik (eta, beraz, bizibidea) alde egin behar izan du muturreko indarkeriaren ondorioz. Pertsona horiek beste zonalde batzuetan ezarri dira “modu prekarioan”; laguntza humanitaria ezinbestekoa dute. Erakunde horien kalkuluen arabera, Burkina Fasoko hiru milioi pertsona daude elikagaiak lortzeko zailtasunak dituztenak. 2021erako 1.700 milioi dolar hitzeman zituzten Afrikako Sahel-erako laguntza humanitariorako, eta 700 baino ez dira iritsi. 2022rako, laguntza eman izan duten herrialde batzuek ohartarazi dute haien ekarpenaren zati bat Ukrainako krisira bideratuko dutela, GKEetako arduradunek gogorarazi dutenez. Laburbilduz, Mendebaldearen promesak ez dira betetzen, Afrikaren premiak handitu egiten dira, eta baliabideak, oro har, murriztuak dira.

Ez da ahaztu behar urtarilaren

24an batzar militar batek hartu zuela boterea Burkina Fasoko, azken urte eta erdian Malik eta Gineako Errepublikak hartutako ereduari helduta: militarrek agintean, estatu kolpe (ustez) ez odoltsu baten ondoren eta herritar batzuen babesarekin.

Juan Agulló analistak dioenez, Burkina Fasoko estatu kolpearen oinarrian tokiko Al-Qaedaen aurkako gerra eta Sahel eskualde osoan dagoen ezegonkortasun geopolitikoa daude. Ezegonkortasun hori antzinako buruzagi kolonialen ekintzek areagotu dute. 2014az geroztik, Frantziak “terrorismoaren aurkako” Barkhane misio militarra martxan du Burkinan eta inguruko herrialdeetan. Urteen poderioz herritarren artean eragindako menpekotasun irudipenak nahigabe handia eragin du.

Frantzia, ofizialki, joan den mende-ko 1950eko hamarkadatik 1960ko hamarkadara bitartean irten zen Afrikatik, gogoz kontra. Mende erdi geroago, baina, oraindik egitura politiko, ekonomiko eta kulturala salbatzea lortu du, bere burua bere kolonia ohien zaindaria gisa aurkeztuta, pragmatismoaren eta neokolonialismoaren izenean.

Laguntza humanitaria eta esku-hartze militarrek batera datoz. Sarri, lehen kolonizatu zituena, orain laguntza ematera (eta ukatzera) doakie. Afrikan klasiko bat, oso bizirik jarraitzen duena. ●